

Noaia!!!

www.noaia.com



“Aitarekin bidaian”,
puntako antzezlanaren Sutegin



Usurbil FT kadeteak
denboraldi ona osatzen ari dira

MAHUKA

arropa denda



etxebeste 3 943 361 106

Rafa

iturgindegia



- Kristaldegiko lanak
- Kristalezko mahaia
- Segurtasun beirak
- Kristalezko luzeroak
- Klimalit

astegunetan: 10:30 -13:30 eta 16:30 -19:30

larunbatetan: 10:00 - 13:00

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

ATE IREKIAK

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE 2. zikloa

MAIATZAK 20 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI

MAIATZAK 13 osteguna - 18:00

IRUN

MAIATZAK 20 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORITZA

MAIATZAK 8 larunbata - 11:00

areto nagusian

Albiste iruditan !!

Baxurde Txiki taldekoak nagusi Arbizuko Duatloian

Arbizuko Duatloian izan dira duela egun gutxi Baxurde Txiki triatloi taldeko kideak. Mikel Otaegik irabazi zuen lasterketa, aurten lortu duen hirugarrena izan zen Arbizukoa. Berarekin batera, taldeko beste hainbat partaide ere aritu ziren duatloi horretan, hala nola, Iñaki Añorga, Martin Larrañaga, Pako Rabano eta Joxe Manuel Algorta.

Duatloi denboraldia amaitzear, Mikel Otaegi sailkapen orokorreko lehen postuetan zen Arbizuko lasterketaren ondoren.

Duatloi lasterketak amaitu eta berehala hasiko da triatloi denboraldia.



JOXE MANUEL ALGORTA, ARBIZUKO DUATLOIAN PARTE HARTZEN.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilibidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

AZKEN UDALBATZA PLENOKO KONTUAK **5. OR.**

UDAL AURREKONTUA ONARTU DA **6. OR.**

JAI BATZORDEAREN BILERA, MAIATZAK 13 **12. OR.**

“KOSTAKO KOLOREAK” ERAKUSKETA **13. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

KALITATERO EUSKAL OKELA
ALKORTA
AUTOZERBITZUA
CARNÉ DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAÍS VASCO
Behoko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42
Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak



IMANOL UBEDA

Lurren faltan...

Potxoenean erreparatu duzue azken egun hauetan? Bitxia da irudikatzen duena, ezta? Aurrekaldeko hormatzarra zutik utzi dute, gainontzekoa desagertu egin da. Horrelakoetan, gustuko dut orain arte ezinezko perspektika izan den horretan begira egotea. Potxoenearen atzekaldeak utzi dituen arrastoen artean, Dema-plaza zein frontoia ikus daitezke. Laster batean, ezinezko perspektikak izango dira berriz ere. Horregatik egiten zaizkit deigarriak Potxoenea botatzeak zabaldu dituen perspektiba horiek.

Etorkizuneko kultur eraikin berriak, beraz, betiko ataria izango du, baina hezurdura eta gorputza berrituak izango dira. Eta baita erabilera ere. Urtetan kale baserri izan dena kultur ekipamendu bihurtuko baita.

Potxoeneko paretari begira, halako galderak sortu zaizkit. Nor biziko zen hemen? Eta zergatik egon da hainbeste urtez hutsik? Auskalo zenbat gertaeren lekuko izan den. Dema-plazari begira, elizatik gertu... Herri honetako pasarte askoren testigu garrantzitsua izan da. Ai, harriek hitz egingo balute...

"Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak" liburura jo dut eta paperetan ez da Potxoenea izeneko baserririk. "Arrillaga edo Arribillaga izenekin agertzen da dokumentuetan idatzia". Josu Tellabidek idatzi zuen liburu ederrak, honela dio hain zuzen, Potxoenez: "Elizaldeko kaskoan aurkitzen da, Irazu kalean, karkaba estu batek San Salvatore elizatik bana-

tzen duela. Arrillaga edo Arribillaga izenekin agertzen da dokumentuetan idatzia, baina herritarrek "Potxoenea" ezizena esaten diote. Saroe jauregiko jabegoa da. 1760an erre egin zen, eta ondoren berreraiki egin zuten. Beharbada, 1689an Ignacio de Soroa kapitainaren jabegoa zen, eta etxe hau eta "Urdincho" etxe bera dira. "La cassa de Urdincho sitta en la misma villa a espaldas de la parroquial de ella..."

Irastorza sendia bizi zen bertan. Joxe Migel Irastorza zen etxeiko maizterra. Behi bat edo bi edukitzen zituzten ukui-luan. Ukuiu honen ondoan Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren bulegoa zegoen. Kale baserri txiki honek ez zuen lurrik, etxearen jabeak, uzten zizkionak baizik.

Joxe Migel hil zenean, familiak alde egin zuen bertatik".

Deigarria egin zait esplikazioa. Kale baserria izanik, lurrik ez eta jabearen beste larre batzuk baliatuko zituela maizterrak. Zeharka bada ere, gizakiontzat lurren premia ezinbestekoa dela esaten da.

Gaur egungo kaletar batzuk ere hasi dira horretaz jabetzen. "Naturaren zikloekin sintonia berreskuratzearen garrantziaz". Haientzat ikastaro interesgarria antolatu du Usurbiltzen elkarteak, "Hiri baratza ekologikoa terrazetan eta balkoietan".

Lurren faltan, balkoiak eta terrazak baliatu ditzagun. Interesa duzuenok, orriotan aurkituko duzue ikastaroaren berri.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Egunkariako epaiaren aurkako helegiterik ez dute aurkeztuko

Egunkaria auziko epaia behin betikoa da jada, akusazio lane-tan jardun duten "AVT" eta "Dignidad y Justicia" elkarteetako ordezkariak helegiterik ez dutela aurkeztuko iragarri baitzuten apirilaren 29an Madrilan egin zuten agerraldian. Euren esanetan, Espainiako Auzitegi Gorenera ez dute joko epaiketa galdu dezaketelako eta kostuei aurre egiteko nahikoa baliabide ekonomikorik ez luketelako izango.

Pieza ekonomikoak zabalik jarraitzen du ordea. Zortzi lagun daude auzipetuta. Defentsak epaiketa Donostiako Auzitegira lekuz aldatzea eskatua du, absoluzioaren ostean egoera juridiko berria sortu dela ulertzen baitu. Ohiko delituari lotutako auzia litzateke pieza ekonomikoa eta ohiko delituak epaitzeko eskuduntzarik ez du Espainiako Auzitegi Nazionalak. Eskaria onartzen badute, auzi ekonomikoa Donostiako epaitzeko zigor sailean epaituko da.



AUZI EKONOMIKOAK, ORDEA, ZABALIK JARRAITZEN DU DRAINDIK.

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tif 36 21 64
USURBIL

ERRAZKIN
Igeltzeritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

**BENTA
TABERNA**
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

Arau Subsidiarioak, azken osoko bilkuran hizpide

2010eko udal aurrekontuak onartzearekin batera, udalerriko lur eremu desberdinei eragingo dieten hirigintza alorreko erabakiak onartu zituzten udal ordezkariak, apirilaren 27an burutu zen osoko ohiko bilkuran.

Ugartondo eremuko kontzertazio-hitzarmena, alegazioak erantzunda behin betirako onartua.

Bozketa: alde, ezker abertzalea; abstentzioa, Aralar, PSE-EE, EAJ-PNV eta Alkarbide.

SGEDP-5 (Santueneko plaza) eta SGERC-3 (Patzulotegia) Sistema Orokorren Antolamendu Xehatuaren Aldaketa, alegazioak erantzunda behin betirako onartua.

Bozketa: alde, Ezker abertzalea, Aralar eta PSE-EE; abstentzioa, EAJ-PNV; aurka, Alkarbide.



PASA DEN ASTEAN EGINDAKO PLENOAN HAINBAT GAI LANDU ZIREN.

Elutxeko Zuloa eremuko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntuala, behin betirako onartua. Bozketa: alde, aho batez.

Olarriondo sektoreko BEP-5 partzela garatzeko, Zehaztasun Azterlana behin betirako onartzea.

Bozketa: alde, Ezker abertzalea, PSE-EE eta EAJ-PNV; abstentzioa, Aralar eta Alkarbide.

Laster jarriko da Mikel Laboaren omenezko eskultura

Mikel Laboa plazak, laster, Mkantari donostiarrari eskainitako eskultura izango du. Maiatzaren 16an ekitaldi berezi bat egingo da, inaugurazio modukoa. Baina eskultura egun batzuk lehenago jarriko dute.

Usurbilgo Udalak lehiaketa bat antolatu zuen eta artelan ugari aurkeztu ziren. Azkenean, Juan Jose Arangurenen eskultura izan zen epaimahaiak aukeratu zuena.



JUAN JOSE ARANGURENENA DA JARRIKO DEN ESKULTURA.

“Haur Eskolan etxean bezala” proiektuari lotutako bilkura, maiatzaren 10ean Haur Eskolan

Haur txikiak dituzten gurasoei Hedota guraso izango direnei zuzendutako bilkura antolatu da, datorren astelehenerako, maiatzak 10, arratsaldeko 18:00etan Haur Eskolan.

Udalak ikastolarekin batera bultzatutako “Haur eskolan etxean bezala” proiektuari buruz hitz egiteko jarri dute hitzordua. Seme-alaben osasun emozionala guraso eta irakasleekin lantzean oinarritzen da aipatu proiektua. Bereziki haur eta gurasoen bizitzako une hauek jorratzea du helburu: erditzea eta erditze ostean zein haur eskolan 3 urte arteko hazkuntza eta hezkuntza osasuntsuaren jarraipena egitea.

Elkarlana indartu nahi da
Proiektu pilotu honek helburu hauek

ditu: haurren behar emozionalak errespetatuta, guraso eta irakasleen estresa gutxitzea; haurren hazkuntza une desberdinen ezagutzan sakontzea; elkarlaguntza eta komunikazioa bultzatuz ezintasun, bakardade edo depresioa bezalako egoerak saihestea; sortzen diren une zailtarako alde aurretik prestatzea; haur eta hezitzaileen arteko lotura afektiboak indartzea eta bananbanako arreta handitzea; sendien eta ikastolaren arteko komunikazioa hobetzea... Funtsean, sufrimendu egoerak saihestu eta haurraren segurtasun oinarri maila handiagoa lortzeko.

Deialdi berezia gurasoei

Proiektuaren barruan hamar saio burutzea aurreikusten zen irakasleekin. Lehen lau saioak egin dira. Baina azken bilkuran, ekimenak izan duen parte hartze



SEME-ALABEN OSASUN EMOZIONALA GURASOekin ETA IRAKASLEekin BATERA LANTZEA DA HELBURUA.

eskasagatik, proiektuarekin aurrera jarraitzea bideragarria ez zela ondorioztatu zuten. Horregatik, azken bilkura burutu nahi dute hilaren 10ean. Deialdia bereziki proiektuan parte hartu nahi luketen guraso berriei zuzendu nahi diete antolatzailerak. Bilkuraren arabera erabakiko dute gero, proiektuarekin aurrera jarraitu edo ez.

Udal aurrekontuak behin betirako onartu dira

Potxoenea, kiroldegia edota gerontologikoa, inbertsio nagusien artean

Potxoenea, Santuenea, gerontologikoa edota Oiardo Kiroldegira bideratuko dira besteak beste, 2010eko udal aurrekontuak. Xabier Mikel Errekondok aipatzen duenez, egitasmo hauek eta beste batzuk gauzatzeko, “2009ko ekitaldia ondo itxi dugu”. Zerga tasetan ez da igoyerarik aplikatuko aurten eta udal aurrekontuotako egitasmoen bidez, aurrera begira udal lanpostu berriak sortzeko asmoa du Udalak.

Apirilaren 27an burutu zen hilabete amaierako osoko ohiko bilkuran gehiengo osoz aurrera atera ziren udal aurrekontuak. Behin betirako onarpena jaso zuten. Ezker abertzalearekin batera, Aralarrek babestu ditu 2010eko aurrekontuak. EAJ-PNV eta PSE-EEko udal ordezkariak abstenitu egin ziren eta Alkarbide udal taldeak proposamenaren aurka bozkatu zuen. 13.300.000 euro inguruko aurrekontua du Udalak, aurten gauzatu asmo dituen proiektuetarako.

TASAK EZ DIRA IGOKO

2009ko ekitaldia positiboki itxi du Udalak. “Zorionekoak gara, hainbat udalek dituzten arazoak ikusita”, dio alkateak

Diru kontuak, “saneatuak”

Krisialdia ez da amaitu eta nabari da Udalean ere. Aurrekontuetarako, gainerakoek bezala Usurbilgo Udalak jasotzen duen diru zati handiena Foru Aldunditik dator. “Gure sarrera nagusi diren horietatik datoz udalen finantziario arazoak”, gogorarazi du alkateak. Udalak hasiera batean itzuli beharreko diru kopurua 400.000 eurotik 600.000ra igo da.

Halere, 2009ko ekitaldia positiboki itxi du Udalak. Baikor agertu da alka-



MOJEK KALEZARREN DUTEN EGOITZAN ERAIKIKO DA GERONTOLOGIKOA. IRUDIAN, PROIEKTUAREN MAKETA.

tea. “Zorionekoak gara, hainbat udalek dituzten arazoak ikusita”, adierazi du Errekondok. Bere esanetan, ekitaldia “ondo saneatuta” itxi dute.

Horren erakusgarri, datozen hileotan aurrekontuek Udalari hainbat inbertsio burutzeko emango dioten aukera. Eta tasak bere horretan mantenduta. Herritarrek ordaindu beharreko zergetan oro har ez baita igoyerarik aplikatu.

Proiektuak gauzatzen hasiak edo hastear

Kultur alorreko norbanako, talde eta elkarten bilgune izango den Potxoenea eraikina eraberritzea legoke aurreikusten diren proiektuen artean. Lanak hasita daude jada, eta 2011ko uda parterako amaitzea espero du Udalak.

Laster ere, Kalezarren urteetan mojetako egoitza izan dena behera bota eta gerontologiko berria eraikiko dute bertan. Lanak ekainean hasi eta 2011. urte amaierarako edota beranduenez 2012. urte hasterako amaituta izatea aurreikusten du Udalak. Haren ondoan, tutoretzapeko etxebizitzak eraikitzeko asmoa dago, autonomoak izan baina udal zerbitzuen

beharra duten herritarrentzat. Gizarte ongizate alorrera aurreikusi baino diru partida handiagoa bideratuko da aurten. Eta laguntzak izango dira egoera zaileri aurre egin beharrean aurkitzen diren herritarrentzat. “Aurrekontuok malgutasuna ematen dute, egoera larriari erantzuteko”, adierazi du Xabier Mikel Errekondok.

Udarregi ikastolak eraikin berria izango du

Hezkuntzaren alorrean, epe hertainerako planteatzen den erronka nagusia Udarregi ikastolaren eraikin berria da. 2013-14 ikasturterako egina legoke, udal aurreikuspenen arabera. Ordura arte, eta aurten-goari dagokionean, egokitzen burutuko dira ikastolak egun dituen hiru eraikinetan.



Frontoi estalia eraikiko dute Santuenean

Muna Lurra berrurbanizatu dute azken urte honetan. Antzeko proiektua bideratu nahi du Udalak, udatik aurrera Santuenean. Frontoi estalia eraikiko dute bertan, kirol edo aisialdi gune berriarekin eta oinezkoen bideak bultzatzearekin batera. Handik gertu, Atallura bideratuko dira beste zenbait udal diru partida; Ugartondotik bertara leku aldatu delako brigadaren egoitza eta egun bertan dute kokagunea baita, Lanbide Hastapeneko tailerrek ere.

Udal aurrekontuetako beste diru partidetako bat, Oiardo Kiroldegian berrikuntzak egitera bideratuko da.

Kiroldegian hobekuntzak

Eraikin berria egiteko proposamena alboratu ostean, udatik aurrera hasi nahi da handitzearekin; aldagela edota pista berriak egiteko lanekin, alkateak gogorarazi duenez, "kirol taldeekin egindako lanari esker".



BIZILAGUNEKIN HAINBAT BILERA EGIN DITUZTE AZKEN HILABETEOTAN. OKERRIK EZ BADA, UDAN HASIKO DIRA FRONTOI ESTALIA ERAIKITZEN SANTUENEAN.

Kiroldegirako irisgarritasuna ere hobetu nahi da, arlanpa bat jarriko da. Baita Aginagan ere, eta igogailua eraikiko dute bertan.

Aipatzekoak dira bestalde, hirigintza eta nekazaritza alorrei dagokienean, Udalak egingo dituen lur erosketak.

Lanpostu berri gehiago sortuko ditu Udalak

Hurbileko zerbitzu eta kudeaketaren aldeko apustua egiten jarraitu nahi du Udalak. Horren baitan, udal langileria taldea indartu nahi dute. "Lanpostuen zerrenda zabaldu dugu, ia kanpo kontratazioaren parekoa da", zehaztu du alkateak. Iaz, hondakinen kudeaketan burutu zen aldatzarekin, hau da atez ateko bilketa abian jartzearekin batera, Udalak zortzi lanpostu berri sortu zituen. Sozietatea sortzea izango da hurrengo urratsa. Aste honetan bertan, merkataritza sozietate horren memoria behin betirako onartu edo ez erabakitzea zen udalbatza, ezohiko osoko bilkura batean.

Baina datozen hilabeteotan, lanpostu berri gehiago sortu nahi ditu Udalak. Gerontologiko berria zabaltean, gobernu taldeak herritarrei eman nahi die bertan lan egiteko

lehentasuna, formazioa eskaintzearekin batera. Bestalde, berdintasun alorreko teknikari berria izango du Udalak. Lanpostua betetzeko prozesua, alkatearen esanetan, "azken urratsetan da". Berdintasun ikuspegia ere integratua dute eta udal aurrekontuok. Elhuyarrek eta Udalak batera burututako berdintasun aukeren inguruko azterketan hainbat irizpide zehaztu ziren eta gauzatzen ari dira.

Udal plantilla zerrenda, onartua

Udal lanpostuak aipatuta, pasa den apirilaren 27ko ohiko osoko bilkuran, eta gehiengoz, aurtengo Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla organikoa onartu zituen udalbatzak. Ezker abertzaleak alde bozkatu zuen, Aralar eta PSE-EE-ko udal ordezkariak abstentziora jo zuten eta EAJ-PNV eta Alkarbide udal taldeak aurka agertu ziren.

Pintore ikastaroa antolatu du Udalak

INEMek eta Europako Gizarte Fondoak lagunduta pintore ikastaroa antolatu du Usurbilgo Udalak, lanbide honetan prestakuntzarik izan ez eta motibaturik diren langabetuentzat. Lanean direnei ere zuzendua dago, beti ere ikasleen %40a gaitzen ez badute. Maiatzaren 19an hasi eta abenduaren 20ra arte luzatuko da pintore ikastaroa, eta Atallu poligonoan, Sanpiura 3 zenbakian burutuko da.

Ikasleek urte amaierarako pintura eta papereztatze lan desberdinak egiteko gaitasuna izango dute. Horren ostean, sektoreko enpresetan praktikak egiteko aukera izango dute.

Argibide gehiago 943 371 951 telefono zenbakira deituta.

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen baimena jaso du Zubietan eraiki nahi duten errauste plantak

Errauste planta eraikitzeko lanak laster hasiko dituztela iragarri zuen Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko diputatu Carlos Ormazabalek apirilaren 29an hedabideen aurrean burutu zuen agerraldian. Usurbilgo udaleko alkate Xabier Mikel Errekondok errauste plantarik jartzeko eskubiderik ez dutela gogorarazi zuen. Atez ateko bilketa Gipuzkoa osora hedatu eta erraustegiari “jatekoa” kendera zaiola gaineratzen du.

2013. urterako Zubietan eraiki asmo duten errauste plantako lanak amaituta egongo direla iragarri zuen apirilaren 29an, Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko eta Gipuzkoako

Hondakinen Kontsortzioko presidente Carlos Ormazabalek. Lanak laster hasiko dituztela adierazi zuen, paperen garaia amaitu dela eta hastear dela eraikitze aldia. Eusko Jaurlaritzaren ingurumen baimena du bi milatik gora emendakin jarri dizkioten egitasmoak. Aipatu oniritziarekin, instalakuntzek baldintza tekniko eta ingurumenekoak betetzen dituela adierazi zuen Ormazabalek. Errauste plantak 260 milioi euroko kostua izango duela kalkulatu du Aldundiak.

Diputatua hedabideen aurrera agertu baino astebete lehenago, Aldundia bera ordezkatu dagoen Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak kaleratutako datuak ezagutzera eman zituen San



ITXURA HAU IZANGO LUKE BALIZKO
ERRAUSTE-PLANTAK.

Marko Mankomunitateak. Emaitza hauen arabera, Usurbilen atez ateko bilketaekin, Gipuzkoa osoan abian jarri diren bosgarren edukiontzien esperientziarekin baino organiko gehiago biltzen da eta honenbestez, birziklatze maila hobea lortzen da.

“Jatekoa kenduko diogu balizko errauste-planta toxikoari”

Ormazabalaren agerraldiaren haritik, prentsa ohar bidez, Xabier Mikel Errekondo alkateak gogor salatu zuen beste behin Zubietan gauzatu nahi duten egitasmoa. “Ez dute errauste planta hori inon jartzeko eskubiderik, baina are gutxiago %80 baino gehiago birziklatzen duen herrian. Ez dute eskubiderik herritarrei horrelako mezuak igortzeko, birziklatu arren, egunero %80 baino gehiago birziklatu arren, horrelako zigorrak neurririk ezartzeko”, adierazi zuen. Inork etxe ondoan nahi ez duen proiektuarekin aurrera jarraituta Aldundiari ostrukarena egitea egotzi zion alkateak, herritarren kontrako politika bideratzen ari dela gogoraraztearekin batera.

Bidegabetzat jotzen du Errekondok, 400 milioi herritarren osasuna kaltetuko duen egitasmo batera bideratzea, atez atekoa bezalako alternatibak daudenean.

“Zero Zabor” programa

Atez atekoak atzera bueltarik ez duela eta aipatu bilketa sistema Gipuzkoa osora hedatuko dela jakinarazi du Errekondok, errauste plantari aurre eginez. “Jatekoa kenduko diogu balizko errauste planta toxikoari, lehengaiak errausteak ez baitu ez buru ez hankarik”, gaineratu du. Usurbilgo Itunak jasotzen duenaren eta “Zero Zabor” programa garatzearen alde agertu da beste behin, Errekondo.

Oiartzunen eta Hernanin laster hasiko dira atez ateko

Usurbilen iazko martxoan egin bezala, Hernanin eta Oiartzunen asteotan abiatuko dute atez ateko bilketa sistema. Oiartzunen asteazken honetan, maiatzaren 5ean hastekoak ziren, baina azpiegitura arrazoiengatik hilaren 23an ekingo diote hondakinak gaika eta atez ateko biltzeari.

Hernanin berriz, igande honetan estreinatuko dute bilketa sistema berria. Azken egunotan, auzoka herritarrekin azken bilerak eta organikoak jasotzeko ontziak banatzen aritu dira bi udalerriotan.

URDAINTZI S.L.
eraikitzea

943 37 33 48
943 37 09 13

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia

LABE-GOXO

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Olatz Lasagabaster, Brievako espetxetik

“Borrokaldiaren helburu nagusia preso politikook pairatzen dugun egoera salatzea da”

Euskal preso politikokoak pro- testaldian dira iragan urta- rrietik. Euskal presoaren esta- tus politikoa onartzea, Euskal Herriratzea eta tratu duina jasotzea dira hitz gutxitan, euren aldarrikapen nagusiak. Brievako espetxean (Avila, Espainia) 9 euskal preso daude, tarte- an, Olatz Lasagabaster usurbildar gaztea. Espetxetik erantzun ditu gal- dera hauek.

NOAUA! Euskal Preso Politikoen Kolektiboa burutzen ari den borro- kaldian ari zara parte hartzen. Zeintzuk dira ekimen honen helburu nagusiak?

Olatz Lasagabaster. Bai, Brievako espetxean gauden euskal preso politi- koak urtarrilean abiatu zen borrokaldi- an parte hartzen ari gara. Euskal Preso Politikoen Kolektiboak (EPPK) Estatu espainiarrean eta Estatu fran- tsesean abiatu duen borrokaldiaren helburu nagusia, EPPK-k sorreratik bere egin dituen aldarrikapenak egitea eta preso politikook espetxeetan paira- tzen dugun egoera salatzea da. Aldarrikapenei dagokionez, hauek izango lirakeke eskaera nagusiak: gaixo larriak kaleratzea, zigorraren 3/4ak beteak dituztenak kaleratzea, isola- mendua behin betiko amaitzea eta Euskal Herriak bizi duen gatazka poli- tikoaren ondorio garen heinean, dago- kigun estatus politikoa onartzea, Euskal Herriratzea eta tratu duina jasotzea.

Bestalde, gure aurka eta gure senide- en aurka hartutako neurriak salatu behar ditugu: Estatu espainiarreko espetxe gehienetan gure senideak aurrez-aurrekoetara sartzeko miaketa- agindua bertan behera geratu den arren, espetxe batzuk bere horretan utzi dute neurria.

Aipatzekoak dira, halaber, azken egunetan hainbat kidek jasotako jipoiak eta azkenaldian areagotu den espetxe barneko dispertsioa. Horrek, kolektibo gisa funtzionatzeko aukera eta gure arteko komunikazioa gehiago oztopatzen du. Egunero egunero jasa- ten ditugun eskubide urraketak ere irmoki salatzen ditugu.

N. Zuen kasuan, zailtasunik izan al duzue zuen ekimena bideratzeko garaian?

O. L. Urtarrileko saioari espetxe guztietan egindako ekimen iraunkor- rarekin eman diogu jarraipena eta Brievan, martxoan jarraitzea egokitu zitzaigun. Espetxe bakoitzean, bertako egoerara egokitu genituen borro- karen aldarrikapenak eta gure eskaera zehatza izan zen: 3/4ak beteak dituz- tenak kalera! Bost eguneko itxialdia egin genuen eta hilean zehar hainbat enkartelada egin genituen funtziona- rioen garitaren aurrean.

OLATZ LASAGABASTER

“Edozein elkartasun keinuk garrantzia handia du eta eguneroko grisa kolorez- tätzen laguntzen digu”

Ez urtarrilean ez martxoan, ez dugu ekimena aurrera eramateko zailtasun berezirik izan eta ondoren horrelakoetan jasotzen ditugun ohiko zigorrak jaso ditugu: arratsal- detan ziegan ordu gehiagoz geratu beharra, alegia.

N. Zuen borrokaldiarekin bat egi- nez, hainbat ekimen burutu dira hainbat herrietan (martxak, mani- festazioak...).



OLATZ LASAGABASTER, BRIEVAKO KARTZELAN EGINDAKO ERRETRATUAN.

O. L. Kanpokoekin komunikatze- ko jartzen dizkiguten oztopoen eragi- nez, kalean egiten diren ekimenen berri senideen, lagunaren edota pren- tsaren bidez izaten dugu eta berota- sun hori une horretan bertan jasotzen ez dugun arren, barneko borroka kalean ere norabide berean bideratu dela sentitzeak indar handia ematen digu.

Lau paretan hauen artean egonik, kalea bizirik dagoela sentitzea arnas- bidea da. Edozein elkartasun keinuk garrantzia handia du eta eguneroko grisa koloreztätzen laguntzen digu. Hormigoizko kaiola hauetatik kanpo eta ehunka kilometrora Herria borro- kan ari dela sentitzea ederra eta beha- rrezkoa da euskal preso politikoen- tzat.

Beñat Arruti, Ziortzako kidea gaur egun

“Gu jada gazte elkarte bat ez, familia modukoa gara”

Dena prest dute Ziortza gazte elkartekoek maiatzaren 8rako. Bete berri duen mende laurdena gogorazi eta urteotan bilgunearekin loturarik izan duen herritar oro omendu nahi dute antolatzaileek larunbat honetan. Horregatik antolatu dute, arratsaldean hasi eta afalostera arte luzatuko den egitaraua. Egun hau antolatzen dabilenetako bat Beñat Arruti Ziortzako gaztea da. Gazte Elkarteari buruzko egungo ikuspegia azaltzen du ondorengo lerrootan.

NOAUA! Nola hurbildu zinen Ziortzara?

Beñat Arruti. Duela hiru bat urte hasi nintzen. Horacio eta Mainerekin bilera egin genuen. Elkartzen hasi ginen 6-7 bat gazte. Pixkanaka laguntzen hasi ginen.

BEÑAT ARRUTI

“Ziortzarekin, adin tarte desberdinetako gazteok ondo pasa eta lagunak izateko modua aurkitu dugu”

N. Zer egiten duzue astero?

B. A. Orain, 25. urteurreneko ospakizunak antolatzen ari gara 12 bat gazte. Bestalde, Sendotzan parte hartzen dugu. Bertan gai bat planteatu eta horretaz eztabaidatzen aritzen gara.

N. Zein da hobekien baloratzen duzun Ziortzako alderdia?

B. A. Bertan dugun laguntasuna, dudarik gabe. Gu jada gazte elkarte bat ez, familia modukoa gara. Ziortzarekin, adin tarte desberdinetako gazteok ondo pasa eta lagunak izateko modua aurkitu dugu.

N. Herritik kanpo ikasten duzuenek, Ziortza elkarteko aukera bat da?

B. A. Koadrilako pare bat daude Ziortzan. Baina bestela, kalean gutxitan topatzen gara bertakoekin. Donostian

ikasten dut eta gutxi ibiltzen naiz Usurbilen. Elkartzen garenean, hitz egin eta ondo pasatzen dugu astean hiru orduetan Ziortzarekin.

N. Gazte berri asko doaz Ziortzara. Nolako dator harrobia?

B. A. Beteranoenak gara. Gu baino gazteagokoak indartsu datoz. DBH-ko ikasturte bateko ikasle guztiak Ziortzan daude. Kamisetak atera ditugu 25. urteurrena dela eta. Saltzeko boluntarioak behar genituen, eurei galdetu eta denek egon nahi zuten salmenta postuan. Hauek atzetik dauden artean, Ziortzak aurrera jarraituko du, ziur.

N. Kanpamendura joateko asmorik ba al duzu?

B. A. 14-15 bat egongo gara, laguntzaile moduan. Bi txanda izango dira, haur dezenterekin.

N. Ziortzara joan ez denak zergatik parte hartu beharko luke Ziortzan?

B. A. Ez datorrena, lotsagatik da; besteek zer esango dutenagatik. Argi utzi behar dena da, kanpamendua herritarren artekoa dela. Herritarren artean harremanak sendotzen dira. Joan eta errepikatu egiten dute probatu dutenek. Urtean zehar egiten diren ekintzetan bezala. Animatu daitezela gazteak. Ez da iritzia eman behar probatu aurretik.

N. Ziortzak 25 urte bete ditu. Gazteok maiatzaren 8ko ospakizunetara ere joan beharko duzue?

B. A. Herritar asko daude, seguru nago Ziortzarekin loturaren bat izan dutenak. 25 urteotan Ziortzarekin identifikatu direnak animatu daitezela, ondo pasako dugu eta. Gau polita izango da.

N. Aurrera begira, Ziortzan jarraitzeko asmoa duzu?

B. A. Urte batzuk barru, inguruan ibiliko gara. Orain benetan dagoen antolakuntza bezala izatea nahi nuke. Oraingo antolatzaileei esker ari da funtzionatzen Ziortza. Egungo moduan, oraingo indar eta gogoarekin mantendu daitezela.



URTEURRENEKO EKITALDIAK
PRESTATZEN DABILTZA BURU
BELARRI AZKEN ASTEOTAN.

Maiatzaren 8an, urteurreneko ospakizuna

16:00 Altxorraren bila erraldoia:
LH 5-DBH 4ko ikasleei zuzendua.

20:00 Kalejira herrian zehar.

21:00 Afaria frontoian.

Ondoren, argazki emanaldia
eta DJ Larra.

Antolatzailea: Ziortza Gazte Elkartea.

Ia 80 haurrek izena eman dute udako kanpamendurako

Ziortza Gazte Elkartekoek udako Zoporraildirako Errioxan antolatu duten kanpamenduan ia 80 gazteek izena eman dute. Antolatzaileak kanpamendura joateko laguntzaile taldea osatzen ari dira. Sukaldari, sukaldari laguntzaile, gidari edota mantentze lanetarako inor animatuko balitz, Ziortza Gazte Elkartekoekin jar daitezke harremanetan, honako posta helbidean:
ziortzage@gmail.com

Joseba Apaolaza eta Joxe Ramon Soroiz, “Aitarekin bidaian” antzezlaneko aktore nagusiak

Batetik, zahartzaroari buruzko kronika krudela bezain hunkigarria da eta, bestetik, aita-semeak diren bi protagonisten istorioa kontatzen da. Hala azaldu zuen antzezlan honen aurkezpenean Agurtzane Intxaurreaga zuzendariak. "Publikoa barrenak astinduta atera ohi izan da eszenatokitik, erakusten duguna ederra baita", gehitu zuen.

Hil aurretik, amak semeari aita zain-tzeko eskatu dio eta orain, Patxi semea (Joseba Apaolaza) zinez saiatuko da hitza betetzen. Hala ere, ez da erraza izango, aita (Joxe Ramon Soroiz) gaixo baitago eta zahartzaroko gora beherak direla eta, askotan ihes egiten du beste munduetara. Biak konturatuko dira ez dutela elkar ezagutzen, orain arte, ama izan dutelako zubi.

Musika, hirugarren osagaia

Jabier Muguruza musikariak ere parte hartzen du antzezlan honetan. Aitak akordeoilari on bat izatearekin amesten du eta Muguruzak aitaren irudimenean azaltzen den pertsonaia hori irudikatzen du.

Hika Teatro taldearen lan hau, "Aitarekin bidaian" antzezlan, Donostia Antzerki Sariaren irabazle izan berri da.

MAIATZAK 8 LARUNBATA

“Aitarekin bidaian” antzezlan

Maiatzak 8 larunbata, 20:00etan Sutegiko auditorioan "Aitarekin bidaian" antzezlan.

Egileak: Arantxa Iturbe, Agurtzane Intxaurreaga.

Zuzendaria: A. Intxaurreaga.

Antzezleak: Jose Ramon Soroiz, Joseba Apaolaza, Jabier Muguruza.

Sarrerak: 8 euro aldeztu aurretik Lizardi dendan; 10 egun beretan.



DONOSTIAKO UDALAK URTERO EMATEN DUEN ANTZERKI SARIA ESKURATU DU HIKA TEATRO KONPAINIAREN LAN HONEK.

MAIATZAK 14 OSTIRALA

“Mikel Laboa 1934-2008” dokumentala

Maiatzak 14 ostirala, 20:00etan Sutegiko auditorioan “Mikel Laboa 1934-2008” dokumentalaren proiektzioa.

Marisol Bastida alargunak zuzendu zuen lan honetan Ruper Ordorika, Lluís Llach eta Raimonen adierazpenak jaso ziren.

Sarrerak Lizardi dendan jaso daitezke doan (gehienez bi sarrera pertsonako).



MIKEL LABOAREN DOKUMENTALA BERE EMATZEAK ZUZENDU ZUEN.


MAIATZAK 15 LARUNBATA

Iñaki Salvador Trioren kontzertua

Maiatzak 15 larunbata, 20:00etan Sutegiko auditorioan “Lilurarik ez” kontzertua Iñaki Salvador Trioren eskutik.

Iñaki Salvadorrek 25 urtez egin zuen lan Mikel Laboarekin batera, pianojole moduan. Beste bi musikariek batera etorriko da Sutegira.

Sarrerak: 8 euro aldeztu aurretik Lizardi dendan eta 10 euro egun beretan.



IÑAKI SALVADORREN SAIDAN MIKEL LABOAREN DOINUAK ENTZUNGO DIRA.

Santixabelak prestatzeko Jai Batzordearen bigarren bilera maiatzaren 13an egingo da

Maiatzean sartu gara jada, herriko jaiak ospatzen has-teko bi hilabete eskas gerezten dira. Santixabeletako prestaketa lanei pasa den asteen ekin zien Jai Batzordeak. Bigarrenz maiatzaren 13an bilduko dira, arratsaldeko 19:00etan udalbatza aretoan. Artean, egunotan finkatu dira haur zein helduen danborradan parte hartu nahi dutenei zuzendutako izen ematea eta baita lehen entsegu saioak ere.

Apirilaren 28an bildu zen lehen aldiz uztaila hasieran ospatuko diren Santixabelak prestatzea helburu duen Jai Batzordea. Hogeitik gora lagun elkartu ziren udalbatza aretoan burutu zen bilera. Parte hartze aipagarria, eta anitza izan zen.

Proposamenak egiteko garaia

Jaien nondik norakoak definitzen gogotsu lanean hasiak dira jada. Maiatzaren 11 baino lehen, talde edo norbanakoek jaietarako dituzten proposamenak aurkeztu beharko dituzte; aurrekontua, zer ekitaldi burutu nahi den, ekitaldia egitarauko zer egun eta ordutan kokatu nahi duten... Bi egun beranduegoko deitu dute Jai Batzordearen bigarren hitzordua. Datorren maiatzaren 13an hain zuzen, arratsaldeko 19:00etan udalbatza aretoan.

Maskota, egile faltan

Bestalde, Jai Batzordetik jakinarazi dutenez, maskotaren inguruko gorabeheraz arduratuko den pertsona bat behar da. Interesdunak Udaleko Euskara eta Kultur departamenduari jar dadila harremanetan. Telefono zenbakia honako da: 943 371 999.

Diseinu lehiaketa, laster

Bestalde, aurten ere jaietako egitaraua diseinatzeko lehiaketa antolatzeke asmoa du Udalak. Deialdia laster egingo du. Beraz, ekimenean parte hartu nahi duenak diseinu lanari ekin diezaioke.



AURREKO ASTEAN BILDU ZEN LEHEN ALDIZ JAI BATZORDEA. BIGARRIN BILERA MAIATZAREN 13AN IZANGO DA, UDALETXEKO PLENO ARETOAN.

Danborradetako entseguak hastera doaz

Prestaketa lanak hasi diren garai honetan, herriko jaietako egitarauan ohikoak diren bi ekitaldiren hitzordua finkatu dira dagoeneko; bi danborradenak hain zuzen. Aste honetan egin behar da izen-ematea.

Helduena Santixabel bezperan, uztailaren 1ean arratsaldez irtengo da, 19:00etatik aurrera. Bigarren saioa gauerdian eskainiko du udal-etxeke plazan, txupinazo jaurtiketarekin batera. Haurrena berriz, Santixabel egunean, uztailaren 2ko eguerdian ibiliko da kalez kale.

Bi danborraden prestakizun lanak hasi dira dagoeneko. Ostegun honetan, maiatzak 6, haur danborradan parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera izango dute arratsaldeko 18:00etan Agerialden. Helduek aldiz ostiral honetan, leku berean baina



HELDUEK LEHEN ENTSEGUA OSTIRAL HONETAN IZANGO DUTE AGERIALDEN.

20:30etan. Lehen entsegu saioak ere maiatzaren 7an burutuko dira. Haurrena, 19:00-19:45 artean, eta helduena, 20:30etik aurrera, biak ohi bezala, Agerialden.

“Kostako koloreak”, argazkitan

Carlos Jimenezen argazkiak ikusgai dira Donostiako Kutxa Aretoan

Duela sei urte hasi zen argazki kamararekin jolasean. Geroztik afizio horretan pasatzen ditu aisialdiko ordurik gehienak. Lehiaketa eta sari askotan nabarmendu dute Carlos Jimenezen abilezia. Egun hauetan, Donostiako Kutxa Boulevard Aretoan daude bere argazkiak ikusgai.

Boulevard kalean dago Kutxaren erakusketa aretoa. Maiatzaren 16ra bitartean, Carlos Jimenezen argazkiak egongo dira erakusgai. Egunero, honako ordutegian: 11:30 - 13:30 / 17:00 - 21:00.

Ikustaldi gidatuak ere antolatu dira, honako egunetan: maiatzak 9, 15 eta 16ean, arratsaldeko 18:30ean eta gaztele-raz. Kasu guztietan, sarrera doanekoa da.

Hemen dituzue argazkietako batzuk, txuribeltzean jasoak, argazkilariak berak hala eskatuta.



CARLOS JIMENEZ ARGAZKILARIA, ERAKUSKETA ARETOKO ATARIAREN AURREAN.



SAN TELMO, ITZURUNDIK IKUSITA.



ZARAUTZEKO MALEKOIA.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Astelehenean amaituko da Paleta Goma Txapelketan izena emateko epea

18 urtetik gorakoei zuzendua, maiatzaren erdialdean hasi eta Santixabeletan amaituko da. Datorren astelehenean, maiatzaren 10ean, izena emateko epea amaituko da.

Betebeharreko baldintzak

- Bi pilotarien izenak eman behar dira. Partiden egutegia hasieratik zehaztuta geratuko da eta ezingo da inolaz ere aldatu. Horretarako izango dira ordezkoak.
- Partidak igande arratsaldetan 17:30etik aurrera eta izen emate kopurua handia balitz maiatzaren 11ko bilean zehaztuko litzateke beste egun bat.
- Izena emateko: 626-110923 zenbakira deitu. Izen-emate kuota: 20 euro.
- Usurbildarrek bakarrik parte hartu ahal izango dute.



**ERRASTI-GALARRAGA BIKOTEA
IZAN ZEN IAZKO IRABAZLEA.**

- Txapelketaren nondik norakoak zehazteko maiatzaren 11n bilera egingo da arratsaldeko 20:00etan herriko pilotalekuan.
- Emakumeen arteko txapelketa jokatuko da gutxienez hiru bikote animatzen badira.

Soinketa taldea, bikain Oiartzunen

Apirilaren 24an, soinketa erritmi-ako txapelketa jokatu zen Oiartzunen. Jauziak, figurak, tresnekin ariketak, musika, dantza... Ikuskizuna aparta izan zen eta Usurbilgo ordezkarriak oso ondo aritu ziren. Euren mailan, hirugarren izan ziren azken sailkapenean. Irudian dituzue usurbildar parte hartzaileak.



**USURBILDARRAK HIRUGARREN
IZAN ZIREN.**

NOAUA! Txiki !!

Ea hitz denak aurkitzen dituzun hizki-zopa honetan

Kaixo, Udarregi ikastolako 3. mailako ikasleak gara.

Hilabete honetan, Txina gaia landu dugu ikastolan eta gauza pila bat ikasi ditugu!! Zuek ere ikasi nahi al duzue zerbait Txinari buruz?

Ba ea prestatu dugun hizki zopa honetan bilatzen dituzuen Txinarekin zerikusia duten 10 hitz hauek!! Animo!!

3. mailako ikasleak

- AKUPUNTURA
- KOMETA
- HERENSUGEA
- PAGODA
- ASIA
- ENPERADOREA
- HARRESI-HANDIA
- HIMALAIA
- ARROZA
- HIRI-DEBEKATUA

R	V	M	P	Y	Ñ	V	A	I	A	L	A	M	I	H
Q	K	Z	R	F	A	Z	O	R	R	A	P	Q	E	U
C	S	X	E	A	M	F	A	F	H	A	N	N	P	B
S	R	P	I	G	P	N	W	S	G	B	I	Y	O	I
A	G	X	E	T	K	M	H	O	I	T	H	D	N	J
I	A	E	Y	P	Z	D	D	K	I	A	X	S	I	A
Q	E	N	P	E	R	A	D	O	R	E	A	R	D	Z
R	F	A	M	E	Z	H	P	O	I	U	M	A	L	D
A	U	T	A	K	E	B	E	D	-	I	R	I	H	D
Z	F	E	H	W	A	E	G	U	S	N	E	R	E	H
C	W	M	Q	X	B	Q	Z	N	G	G	V	K	Q	S
T	M	O	Q	T	A	R	U	T	N	U	P	U	K	A
O	J	K	G	X	Ñ	B	Ñ	C	U	G	Ñ	L	V	S
H	P	V	S	C	J	Q	N	J	W	O	Y	V	Q	F
A	I	D	N	A	H	-	I	S	E	R	R	A	H	G

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

teilatuak eta fatxadak

JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Gogoa eta giro ona nagusi kadeteen artean

Gainerako taldeen moduan, denboraldia amaitzeaz dute Usurbil Futbol Taldeko kadeteek. Mikel Irastorza, Iñigo Guadixek eta Jon Irazustabarrenak zuzendutako hogeitaz hamar jokalariz osatutako taldeak denboraldi hasierako aurreikuspenak gainditu ditu, espero baino hobeto amaituko baitute denboraldia. Datorrenean jarraitzeko.

NOAUA! Zenbat partida gelditzen zaizkizue, denboraldia amaitzeko?

Mikel Irastorza. Hiru bat partida ditugu jokatzeke. Bat zaila eta beste bi ez hainbeste. Azken txanpan gaude jada.

N. Saillkapenari dagokionean, zer egoeratan zaudete?

M. I. Bi fase izan dira; lehenengoa, liga. Bigarren fasean, goiko mailan sailkapeneko erdialdean daude; lehen hamarren artean, seigarren postuan. Ez genuen espero. Postu ona da.

MIKEL IRASTORZA

“Parte hartze ona dago entrenamendu saioetan. Gustura dabilta, eta gu ere entrenatzaile bezala berdin”

N. Denboraldi hasierako erronkak bete al dituzue?

M. I. Hasiera batean, ez genuen erronka handirik. Denboraldian aurrera egitea erabaki genuen, denboraldia nola zeterren ikusi nahi genuen. Gero ikusi dugunez, espero baino hobeto joan da.

N. Jokalariak gustura aritu dira?

M. I. Gustura. Gainera, are gehiago jokalariek entrenatzera etorri direla ikusita. Parte hartze ona dago entrenamendu saioetan. Gustura dabilta, eta gu ere entrenatzaile bezala berdin.

N. Datorren urtean segitzeko asmorik badute?

M. I. Jarraitzeko asmoa dute.



JOKALARIAK ETA ENTRENATZAILEAK GUSTURA ARITU DIRA.

Azkenean, denak elkarren lagunak dira, koadrilakoak. Bai futbolagatik eta baita lagunekin jarraitzeagatik, badirudi animatuta daudela. Askotan, maila aldaketekin urte desberdinetako jokalariek nahasten dira. Datorren denboraldian ordea, jokalariek gehienek maila berdinean jarraituko dute.

N. Taldeak dituen indar guneak zeintzuk dira?

M. I. Nik uste indar gune garrantzitsuena jarrera dela. Interesa eta gogoa dute, eta ez dira etsitzen.

N. Denboraldian zehar, bereziki gogorra izan den aurkaririk izan duzue?

M. I. Okerrenak maila igoeran zeuden, talde batzuk izaten dira adin nagusikoak edo bigarren urtekoak. Urte asko daramatzate futbolean, talde indartsuak dira. Gure taldeari haiei aurre egitea gehiago kostatzen da. Gero bestalde, badira beste talde batzuk gazteagoak direnak eta haien aurka hobeto moldatzen gara. Alor fisikoan desberdintasunak nabari dira adin tarte eta maila honetan.

N. Futbol taldetik zein da gehien baloratzen duten alderdia?

M. I. Lagunak bultzatuta datoz futboleko jokatzera. Badira batzuk eskubaloian jokatzen dutenak, eta gerora lagunak esanda proba moduan futboleko hasi direnak. Bestalde, zelaia motibagarria da. Gainera, giro ona nagusitzen da.

N. Beste kategoriatan jokatzen duzue zuk. Zuen garaitik gaztetxo hauengana, desberdintasunik nabari duzue?

M. I. Beste entrenatzaileekin hitz eginda, garai hauetan guretzat futbol partidak asteko ilusioa izaten zen. Kadeteek gauza gehiago dituzte buruan.

N. Denboraldia nola bukatuko duzue?

M. I. Orain goazen bezala buka dezagula, gogotsu eta ez arrastaka. Entrenamendu saio gutxi geratzen dira, gustura gaudela amai dezagula. Hurrengo denboraldiari gogotsu ekiteko. Denboraldi bukaeran klub mailan afera bat egiten da. Guk ere askariren bat ere egingo dugu, denboraldia zapo onarekin amaitzeko.

N. Gazteagoen mailetatik ba al datoz futbol jokalariek?

M. I. Entrenatzen urte batzuk daramatzat, eta oraingo gazteek gu baino aukera gehiago dituzte egun. Orain dagoen antolakuntzarekin aukera gehiago daude jolasteko. Eta badator jendea. Ikusten dira gaztetxoak Haranen.

N. Taldearentzat azken hitzak.

M. I. Jarrera honekin jarrai dezatela. Gogotsu, errespetuz, halako jarrerarekin jarraitzeko. Gogoa dutenean hemen beti izango dute aukera bat futboleko jokatzeke.

Agenda !

Maiatzak 8 larunbata

- Ziortza Gazte Elkartearen 25. urteurrenaren jaia (ikus 10 or.).
- "Aitarekin bidaian" antzerkia Sutegin. 20:00etan.

Maiatzak 13 osteguna

- "Ekonomia krisia", hitzaldia Joseba Tobar Arbuluren eskutik. 19:00etatik aurrera Sutegin.

Maiatzak 14 ostirala

- "Mikel Laboa 1934-2008" dokumentalaren proiektzioa. 20:00etan Sutegin.

Goardiako farmaziak

Maiatzak 6, osteguna

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 7, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 8, larunbata

Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Maiatzak 9, igandea

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Maiatzak 10, astelehena

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 11, asteartea

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 12, asteazkena

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Maiatzak 13, osteguna

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 14, ostirala

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 15, larunbata

Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 16, igandea

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Chucla farmazia (22:00-09:00),
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)
*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Udako Txokoak antolatu dituzte Zubietan

Aurten ere, Udako Txokoak Aegingo dira Zubietan. 2 urte-tik 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude txoko hauek. Uztailan eta abuztuan egongo dira martxan, goizeko ordutegiarekin: 9:30etik 13:30era. Zubietako Eskola Txikian bilduko dira.

Izen emate orriak, dagoeneko, ikastolan eta Barazar Tabernan eskuratu daitezke. Orriak osatu ondoren, Zubietako udaletxeko buzoian bota beharko dira (Alamandegin). Kontuan izan izena emateko azken eguna maiatzaren 21a izango dela.

Kuota izena ematen duten haurren



UZTAILA ETA ABUZTUAN, ESKOLA TXIKIAN ELKARTUKO DIRA 9:30ETIK 13:30ERA.

kopuruaren arabera zehaztuko da.

Edozein zalantza izanez gero deitu telefono zenbaki hauetara:

Josune: 636 719 301.

Izaskun: 618 700 479.

Baratza etxean bertan jartzeko ikastaro praktikoa

Hiri baratza ekologikoa terrazan eta balkoietan izeneko ikastaroa antolatu du Usurbiltzen taldeak. Gasteizko Bioalai kontsumo kooperatibako kide Pedro Ferrerok gidatutako bi ordu inguruko saioan, hiri konpostatzea, barazkien laborantza, ureztatze sistema edota izurri zein gaixotasunen prebentzioa hizpide izango dituzte.

Ikastaroa maiatzaren 29an egingo da baina izen emateko epea maiatzaren 22an amaituko da, honako telefono zenbakira deituz, 627 285 904; edota posta elektronikoa honetara idatziz: usurbiltzen@gmail.com

Bestetik, larunbat honetan, Usurbiltzenekoak Beizamara joango dira, okinen baserria eta labea ezagutzera. Aldabazahar ere bisitatuko dute.

Usurbilgo Pilota

Txapelketako partidak

MAIATZAK 8 LARUNBATA

Usurbilen goizeko 10:30ean

Jubenilak

Landa-Labaka / Arizmendi-Jauregi
(Bidegoien) (Baztan)

Irastorza-Ulanga / Lopez-Iraizoz
(Andoain) (Zizur)

Nagusiak

Santxo-Urruzola / Hernandez-Bilbao
(Usurbil) (Getxo)

MAIATZAK 9 IGANDEA

Usurbilen goizeko 10:30ean

Jubenilak

Zinkunegi-Gesalaga / Setien-Huegun
(Usurbil) (Alde Zaharra)

Nagusiak

Aranburu-Olalde / Rodriguez-Intxausti
(Durango) (Zumarraga)

Urmeneta-Iriarte / Otamendi-Yeregi
(Añorga) (Azpeitia)

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

**Erdi eta goi mailako zikloak
A eta D Ereduak**

www.lhusurbil.com



**Maiatzak 15 eta 22
ATE IREKIAK**

943 36 46 00



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

**ALKARTASUNAREN ESKUTIK
GASOILA MERKEAGO!!!
EZAGUTU BAZKIDE EGITEAREN
ABANTAILA GUZTIAK!!!**



**Irekiera laister
izango da!!!**



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren kooperatiba

Ugarte industrialdea, 12
Atallu industrialdea, 6 - 26. lokala USURBIL
Tel. 943 36 11 14
alkartasuna@usurbil.com · www.alkartasunausurbil.com

osasun gida

Optika



USURBIL
OPTIKA

FARMACIA OPTICA - LENTEKINAK - BARRUAK - BARRUAK
III. BARRUTIAK - LASARTE-ORIA

Zubiaurrenea, 10. USURBIL • ☎ 943 370 269

Fisioterapia



FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola kalea, 12 LASARTE-ORIA • ☎ 943 370 306

Masajista



Kima
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

☎ 943 366 197
Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Farmazia



iturralde
botika

Tomas Iturralde botika
R.P.S. N° 88/07

- ✓ Maisu formulak
- ✓ Dermofarmazia
- ✓ Produktu Homeopatikokoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

Hortz klinika

Huginak ondo dabiltzameun, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, LC4 943 37 08 78 USURBIL